



INDA Eneko, PEYREBLANQUE Xan, BEREAU-LAFITTE Benito, ETCHEVERS Rémi lagun eta arduradunetz inguraturik

### **Benito eta Remi gaztetxoetan txapeldun!**

Joan den ibiakotzean, Union Basque batasunak antolatu pilotari txapelketaren finalak Milafrangako trinketean jokatu ziren, eta Benito Berreau-Lafitte eta

Remi Etchevers Abarratia batasuneko putikoek partida eder bat eginik, azkenean 40 eta 23 ereman dute finala Azkaineko Xan Peyreblanque eta Eneko Indaren aurka. Alta ba elgarren bete ziren partida erditsutan (24-21 Abarratiakoak aitzinean). Biba zuek! Azpimarratu behar da gure putikoek zale asko bazituztela hauen sustengatzera etorriak, eta Remi Etchevers sasoin hontan bigarren aldikotz finalera hupatzen dela eta bigarren aldikotz duela xapela eremaiten. Goresmenak zueri eta aupa Abarratia !

HERRIA

11.02.2016